

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Egokitu zaizun rola defendatu behar duzu zure ikaskidearen aurrean. Argudiatu zure ikuspegia eta aldeko arrazoiak eman.

C1 MAILA**Gaia: TURISMOAREN HAZKUNDEA ONA DA****Elkarrizketa bideratzeko:**

- Turismoaren gorakada positiboa da EAEko ekonomiarentzat, Barne Produktu Gordinean % 6ko ekarpena egiten du.
- Turismoaren hazkundea lanpostuak sortzen ditu.
- Oso polita da gure inguruan hizkuntza ezberdinak entzutea eta beste herrialde batzuetako jendea gertu edukitzea.
- Gu geu ere turistak gara beste hiriak bisitatzeko ditugunean. Zer pentsatuko genuke mugak jarriko balizkigute?.
- Zenbait herri txiki (Zumaia edo Leitza, esaterako) ezagutzera eman dira telebista edo zineari esker eta horrek mapan jarri ditu.

B**BAT-BATEKO ELKARRIZKETA**

Egokitu zaizun rola defendatu behar duzu zure ikaskidearen aurrean. Argudiatu zure ikuspegia eta aldeko arrazoiak eman.

C1 MAILA**Gaia: TURISMOAREN HAZKUNDEA TXARRA DA****Elkarrizketa bideratzeko:**

- Turista asko etortzeak ondorio kaltegarriak ditu bertakoentzat: kaleak selfie-makilaz beteta, tabernak jendez gainezka, etxebizitzaren prezioek gora egiten dute...
- Bertan bizi den jendea lekuz kanpo sentitzen da eta alde egin behar izaten du.
- Turistek dirua ekartzen dutela egia da, baina gastua ere badakarte: segurtasuna handitu behar da, zabor gehiago jaso... baliabide gehiago jarri behar dira turista-uholdeei aurre egiteko.
- Donostian, adibidez, 2017an, 2.000 pisu turistiko inguru daude, eta % 75ak ez du araudia betetzen.
- Gero eta turista gehiago onartzen dira, baina ez da neurririk hartzen ondorioei aurre egiteko.

HIZTEGI LAGUNGARRIA

ARAUDIA BETE.- Udalak edo antzeko erakundeek jarritako arauak kontuan izan.

BATERAEZINA IZAN.- Ez dira bateragarriak, ezin dira biak batera eman.

EKARPENA EGIN.- Zerbait erantsi, eman edo ekarri.

Ez da NEURRIRIK HARTZEN.- Ez dira arauak edo mugak jartzen.

Jendea LEKUZ KANPO sentitzen da.- Deseroso.

Prezioek GORA EGITEN dute.- Produktuak eta zerbitzuak gero eta garestiagoak dira.

Turismoaren HAZKUNDEA.- Turista-kopuruaren gorakada, gero eta turista gehiago etortzea.

IDEIA LAGUNGARRIAK

- *Masifikazioa eta kalitatezko turismoa bateraezinak dira.*
- *Turistaz bete eta herritarrez hustu diren zonaldeak gero eta zabalagoak dira.*
- *Ona litzateke tasa bat ezartzea turismoak sortzen duen aberastasuna hobeto birbanatzeko.*
- *Turismoari buruzko neurriak hartzeko garaian, herritarrei entzun beharko litzaieke.*
- *Turismoaren gorakada era estrategikoan kudeatu behar da.*

Gai honen inguruan IKASBIL atarian aurkituko dituzun beste material batzuk:

- 2219040 [Turismoa mugatu behar al litzateke?](#)
2209568 [Donostiarrik gabeko Donostia](#)
10854115 [Tourist go home!](#)

Beste erreferentzia batzuk:

- [Turismoaren hazkundera](#)
[Turismoa Euskal Herrian](#)
[Turismo alokairua arautu egin behar da](#)